

FAUNA PUBLIKOA

**"PSNren legearen alde
bozkatu beste aukerarik
ez genuen izan"**

Marisa de Simon,

**Nafarroako Ezker Batuko idazkari nagusia,
hezkuntzako zerrenda bakarraren auziaz (Berria)**

Zonbi batekin bizi



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Berak ezin zuen ezer egin, ez zen bere eskumenekoa. Jo-seba Tapiaren *Real politik* entzuten da lerro artean, joan den igandeko *Berriak* Marisa de Simoni egindako elkar-rizketan. Ez zeukatela beste aukerarik, aizue. Fenomeno meteorologikoa balitz bezala: isobarak, fronte hotzak, ziklogenesiak eta euskaldunak diskriminatzen dituen sistemen alde bozkatzea erregimeneko alderdiekin batera –bidenabar, aldaketaren indarrei, gehiengo sindikalari eta euskalgintzari bizkarra emanda–.

Irakurri berriz: "Beste aukerarik ez genuen izan". Ezetz? Kazetariak galdetzen dionean ea zergatik ez zuten abstentziora jo, elkarriketa sketch bihurtzen da, Benny Hill-ek famatu egin zuen generokoa, zeinean ikus dezakezun politikari baten hanka-jokoa kamera azkartuan, aski modu komikoan, atzetik segika dauzkan galdera deserosoei iskin egin ezinda.

Aldaketaren gobernuak lau gupil baditu ere, Izquierda-Ezkerrarena presio-problema izaten ari da maizegi. Zenbaiten ustez, arazoa CCOOren balbula da: belarria gertatzen baduzu ZZZzzzzZZZZzzz konstante bat entzuten da eta, galtzen den haize hori dela-eta, ez dakizu noiz utziko zaituen autoak bide bazterrean botata.

Bada problemaren irakurketa haragizkoagoa egiten duenik ere. Alegia, Xabierko San Frantziskoren beso ustelga-beak santuaren gorpuari biziraun omen zion bezala, hor segitzen duela Nafarroako erregimenak euskararen kontra zeukan jarreraren zati batek, UPSNren txitxi kirastuen ordeztu eraikitako alternatibari. Biek, besoak eta erregimenaren kondar horrek, hozki pixka bat ematen dute eta berez hobe leudeke hozkailu batean sartuta, publikoari diosal egiten baino. Baina ei, Nafarroari buruz ari gara: hemen batzuetan ez dago zonbiekin bizitzea beste erremediorik. ■


**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



PLASMA VS TELEMATIKA

errealitate birtuala ala birtualitate erreala?

**ERREALISMOA
EXIJITZEN DIZUT!**



AÑUR